

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

1.SAIOA

DATA: 2022-10-05
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 55 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia), Iraitz Lazkano (Alkatea)- Goiener: Oier Etxebarria- Emun: Ihabar Arriaran.

SARRERA

Udaleko ordezkari Ibai Larrañagak prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu.

Komunitate energetikoa sortzea da asmoa. Energia trantsiziorantz aurrerapausoak emateko tokikotasunetik hasita. Goiener eta Emunen laguntza izango dugu prozesu honetan.

AURKEZPENA – “ZER DA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA”

Goienerreko Oier Etxebarriak Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) bat zer den azaldu du.

Ondoren galderak egiteko tarte zabaldu da zalantzak zituzten horientzat.

**Dokumentu honekin batera erabilitako aurkezpena.*

UDALAREN PROPOSAMENA

Energia komunitatearen hasiera errazteko udalak herriko frontoiko teilatua lagapenean utziko dio komunitateari lehenengo instalazio berriztagarria bertan egin dezaten.

D2030en PROPOSAMENA

Eskualde mailan hainbat energia proiektu bultzatzen ari dira, tartean EBK batzuk. Herritar ezberdinak animatzen ditu EBK sortzeko prozesuan parte hartzera.

Horrekin batera, D2030en bultzatzaile den Fagorrek eskualdeko EBK ezberdinetan bazkide laguntzaile bezala sartzeko proposamena egin du. Diru ekarpen bat ere egingo du.

TALDEKO ARIKETA

Parte hartzaileak 10eko taldeetan banatu dira galdera hauei erantzuteko.

-Prest gaude komunitatea sortzeko?

-Zer ekar dezake horrek Elgetan? Zer lortu daiteke?

Orokorrean jendea parte hartzeko prest agertu da. Soluzio baliagarri bezala irudikatu dute. Hala ere, zalantza dezente daude energia gaiaren inguruan.

BILERAREN ITXIERA

Hurrengo bileratan komunitatea sortzeko pausuak emateaz gain, parte hartzaileak ahalduntzen joango gara. Hurrengo saioa energia fakturaren ingurukoa izango da.

Hurrengo saioa: Urriaren 19an – 18:30etan izango da.